· INSTRUMENTU GELAK
· PIANO GELA
· PERKUSIO ENTSEGU GELA
· BAINUGELA

* **GEHIGARRIA**
BIEN ARTEKO LOTURA:
KOMUNIKAZIO HORIZONTALA


2 ERAIKIN BERRIA

-1 SOLAIRUA
· ERAKUSKETA GUNEA
· ENTSEGI GELAK
· BAINUGELA
· ARETO NAGUSIA


BEHE SOLAIRUA
· HARRERA GUNEA
· GRADA
LEHEN SOLAIRUA
· LIBURUTEGIA + FONOTEKA
· BAINUGELA




ERAIKIN BERRIA
ARETO NAGUSIA




BI ERAIKINEN ARTEKO ESPAZIOA
PATIO BATEN BIDEZ + PASAERLA BIDEZ LOTUKO DIRA



GEHIGARRIA
ERAIKIN BIEN ARTEKO LOTURA
ERAIKIN BARRIAREKIN -1ETIK ETA 1.
SOLAIRUTIK LOTURA





Proposamena zahar berritze bat izateaz gain eraikinari atal berri bat gehitzean datza. Programari jarraituz, estantzia bakoitzak behar duen espazioa kontuan izanik, jauregian espazialki sartzan ez diren atalak proposatutako gehikuntzan kokatzen dira. Horiek erakusketa gunea, areto nagusia eta liburutegi/fonoteka dira.

Jauregiak lur azpiko berria den solairu bat dauka, proposamenarekin batera sortutakoa, eta gainetik behe solairua, lehen solairua, bigarren solairua eta estalkipeko solairua ditu; eranskinak berriz, lur azpiko solairu bat, behe solairua eta lehen solairua.



Urbanizazioari dagokionez, parkean izango duen eragina zuzena izango da eta honi lotuta dagoenez, haurren espazioa berrantolatuko da. Eragin zuzen honen isla da eraikinaren zati bateko euri urekin garatuko den fitodepurazioaren bidezko sistema, urak parketan bertan sortutako ladaredi tarte batean filtratu eta errekaratzea arte.



Parkean tarte berdeak eta gogorrak nahasten dira. Urbanizatzeko orduan erabili diren materialak hormigoia, adokinak eta egurra dira. Hormigoia eta adokinak sortutako plaza zein patioetan erabiltzen dira, jada dagoen kale peatonalari jarraitasuna eta bateratasuna emateko asmoarekin. Egurra berriz, parkeko altzariak diseinatzeko erabili da, tarteka gogorra den espazio honi epeltasuna emateko intentzioarekin.



Proiektu honen eraikuntza sistema, gehienbat barne itxituretan, musika eskolak behar duen akustikak baldintzatu du. Hori dela eta, gehienbat gelatako tabikeria, sabai eta zoru sistema bereziak erabili dira. Eraikin osoan sabai faltsua egongo da, bertatik instalakuntza denak igaroko direlarik.


Eraikinaren itxiturari dagokionez, jauregiko harrizko fatxadak trasdosatzea proposatzen da, akustikoki zein termikoki ahalik eta hoberen lan egin dezaten.


Gehigarriaren itxituran berriz, bi itxitura planteatzen dira. Barneko espazioaren arabera ezberdina izango da; eta kanpoko itxiturarako u-glass sistema erabili da, behar den tokietan bigarren orria opakoa edo transluzidoa izango delarik. Bi itxituren artean geratzen den tarteak led argia sartzeko aprobetxatuko da, honek u-glass sistema erabiltzen den fatxada osoa argizatuko duelarik.













MATERIALITASUNA





HORMIGOIA




HARRIA







MATERIALITASUNA




HORMIGOIA




BELARRA




HARRIA






MATERIALTASUNA





HORMIGOIA





BELARRA





KAUTXUA




















LABURPEN TEKNIKOA

1 · ERAIKUNTZA

2 · EGITURAREN GARAPENA

3 · NSTALAKUNTZAK ETA ATONDURAK


Urbanizazioari dagokionez, parkean izango duen eragina zuzena izango da eta honi lotuta dagoenez, haurren espazioa berrantolatuko da. Eragin zuzen honen isla da eraikinaren zati bateko euri urekin garatuko den fitodepurazioaren bidezko sistema, urak parketan bertan sortutako ladaredi tarte batean filtratu eta errelera heltzera arte.

Parkean tarte berdeak eta gogorrak nahasten dira. Urbanizatzeko orduan erabili diren materialak hormigoia, adokinak eta egurra dira. Hormigoia eta adokinak sortutako plaza zein patioetan erabiltzen dira, jada dagoen kale peatonalari jarraitasuna eta bateratasuna emateko asmoarekin. Egurra berriz, parkeko altzariak diseinatzeko erabili da, tarteka gogorra den espazio honi epeltasuna emateko intentzioarekin.

Proiektu honen eraikuntza sistema, gehienbat barne itxituretan, musika eskolak behar duen akustikak baldintzatu du. Hori dela eta, gehienbat gelatako tabakeria, sabai eta zoru sistema bereziak erabili dira. Eraikin osoan sabai faltsua egongo da, bertatik instalakuntza denak igaroko direlarik.

Eraikinaren itxiturari dagokionez, jauregiko harrizko fatxadak trasdosatzea proposatzen da, akustikoki zein termikoki ahalik eta hoberen lan egin dezaten.


Gehigarriaren itxitura berriz, bi itxitura planteatzen dira. Barnekoa espazioaren arabera ezberdina izango da; eta kanpoko itxiturarako u-glass sistema erabili da, behar den tokietan bigarren orria opakoa edo trasluzidoa izango delarik. Bi itxituren artean geratzen den tarteak led argia sartzeko aprobeztatu da, honek u-glass sistema erabiltzen den fatxada osoa argizatuko duelarik.




ERAIKUNTZA PROZESUA

Eraikuntzari dagokionez, aurretik azaldutako baldintzak kontuan hartuta diseinatu da eraikina. Proiektu honetan aurreikusitako operazioerik konplexuena jauregipeko sotoaren sorkuntza izan da, eta hau lantzerako orduan planteamendu bat proposatu da. Kalkuluak egin ez diren arren, eta estudio geoteknikorik eduki ez arren, kasu hipotetiko bat planteatu eta honi soluzioa eman zaio. Proposatutako obra prozesuak lau atal nagusi ditu:


• **1:** Eraikina ahalik eta arinena izan dadin, bertako forjatu zein ezinbestekoak ez diren elementuen desmuntakia egin behar da. Ondoren, puntal teleskopikoen bidez, eta puntal honen egituraren bidez, eraikina eutsi. Dena prest dagoenean puntalak kargan jarri eta honek izango dira eraikin osoaren karga eutsiko dutenak.




• **2:** Behin eraikin dena puntalengatik eutsita dagoela, makinaren bidez lurra zulatzen hasiko da.





• **3:** Ondoren, soto horma eraikitzen hasi beharko da. Horma hau batatxeka egingo da, 2x1 metroko batatxekak eginez. Batatxekak ilaraka eraikiko dira, behin honek tentsioan jarrita azpiko lerroarekin hasiko delarik. Nahi den sakonera lortu arte eraikiko dira bataxeak. Honekin batera, egitura berria eraikitzen joango da eta kasu honetan altzairuzko egitura erabiliko da.



• **4:** -1 solairu honetako zutabe eta habeak eraikiak daudenean eta jada existitzen den zimentazioaren errefortzua gauzatu egondakoan, apurka apurka puntalak deskargatu eta egitura berri honek hartuko du eraikinaren karga guztia.





EGITURAREN DESKRIBAPENA

Egiturari dagokionez, Elorrioko musika eskola bi zatitan banantzen dela esan daiteke: alde batetik jauregia, bertan ikasgelak eta musika eskolak egunerokotasunean funtzionatzeko beharrezko espazioak daude; eta bestetik, liburutegia eta aretoa jasotzen dituen eraikina. Jauregiaren berezko egitura **zurezkoa** da, zurezko zutabe, habe eta habexkak **harrizko karga hormetan** apoiatzen direlarik. Proiektuan jauregiari -1 solairu gehituzaio etaberaz, atal berri honen egitura egungo karga hormen azpian kokatuko denez, honen zutabe eta habeak **metalikoak** izango dira, beharrezkoak diren errefortzuak izango dituelarik. Eraikin berriak aldiz, hormigoi armatuzko soto hormez gain, egitura **metalikoa** izango du. Bi eraikin honen lotura berriz, zertxa metalikoz eginiko pasarela baten bidez egingo da.

Itxiturari dagokionez, u-glass materiala erabiliko da, espazio bakoitzaren beharren arabera bigarren kapa batez osatuko dena.

Master amaierako lan honetan landuko den egitura zatia eraikin berriarena da; hau da, egitura metalikoa duena. Erabiliko diren perfilak laminatuak izango dira. Egitura mota hau erabiltzearen arrazoi nagusia, gune zabalak lortzea izan da. Azken finean jauregiaren dimentsio kontuak medio, ezin izan da programaren zati garrantzitsu bat bertan sartu eta behar horiek hasetzeko gehigarri berri hau proposatu da. Bertan espazio zabalak lortzeaz gain, altuera bikoitzak ere planteatzen dira.

Bestalde, musika eskola bat izanda, soinu eta bibrazioek garrantzia handia izango dute. Hortaz, hormigoi armatuak elementu bakar bat bezala funtzionatzeak ez dio mesede egiten, bibrazioak elementu batetik bestera igarotzeko erretazuna baitute. Elementu finituez osotutako egitura baten berriz, soinuak elementu batetik bestera egin beharko luke salto, bibrazioen banaketa uniforme galaraziz.

Perfiletarako **S275 altzairu mota** erabiliko da, -1 oinean hormigoi armatuzko soto-horma bat agertuko delarik. Forjatuetan berriz, **txapa kolaboratzeilea** erabiliko da soluzio modura.

PLANTEATUTAKO EGITURA

HIPOTESIA: argi zabalenean (12,90 m) habe nagusiak kokatu dira, beste norabidean habexkak egongo direlarik. Hipotesi honetan bi maila ezberdinetako egitura egongo da eta hortaz gain, habexkak ere kokatuko dira.

Suteen aurkako babesak kode teknikoaren suteen aurkako babesaren oinarritzko dokumentuaren arabera justifikatuko da: EKT DB - SI. Dokumentu honen atal guztiak justifikatu beharko dira:

- CTE DB - SI 1. Barrutik hedatzea
- CTE DB - SI 2. Kanpotik hedatzea
- CTE DB - SI 3. Erabiltzaileak ebakutzatzea
- CTE DB - SI 4. Suteetatik babesteko instalakuntzak
- CTE DB - SI 5. Suhiltzaileen lana
- CTE DB - SI 6. Egiturak suaren aurka duen erresistentzia

Hasteko, suteen barneko hedatzea ekiditzeko sektorizazioa definituko da. Ondoren, okupazioaren, erabiltzaileen okupazioa eta suteetatik babesteko instalazioak kalkulatu dira.

Eraikinaren erabilera Hezkuntzako izanik eta 4.000m² baino gutxiagokoa izanik, 2.236 m² -takoa hain zuzen ere, sektore bakar bat egon daiteke.


Eraikinak hiru ebakuzio bide ditu, bat Aldapebeitia Jauregian eta beste biak eraikin berrian. Jauregiko irteera behe solairura bideratuta dago eta eraikin berriko irteeretako bat behe solairura eta bestea eraikin arteko kanpo espaziora, patiora. Bigarren bide honen arrazoia areto nagusia bertan kokatzen dala da; beraz, ekitaldien ondorioz hura beteta egon ezker, kalera irteera zuzena edukiko dute.

Okupazioaren kalkulua egiteko Kode Teknikoak erabilera bakoitzerako aurreikusten duen okupazio zehatza erabili da solairu denetan, egoerarik okerreanean ebakuzioa arazo bat izan ez dadin.


Suteen detekzioerako ke detektagailu optikoak hautatu dira, behe solairuan kokatutako sute zentralari konektatuak. Bestalde, detekzioaren instalakuntza sendotzeko alarma sakagailuak jarriko dira eraikineko puntu ezberdinetan. Suteen kontrako instalakuntzei dagokionez, ABC motako su itzalgailuak ere eraikinean zehar instalatuko dira, baita BIE-ak ere, eraikinak 2.000m² baino gehiago dituelako.

Suhiltzaileen interbentzioari dagokionez, ez dute arazorik izango, eremua urbanoa izateaz gain, fatxadatik solairu bakoitzera sartzea posible izango dute eta. Eraikinaren hegoaldean 4,7 metroko zabalera duen kalea dagoen arren, plazatxo bat dago bertan beraz, kamioiak ez du bertan maniobratzeko arazorik izango, Iparraldean berriz, herriko haur parkea kokatzen da, beraz, kamioak eremu zabal-zabala izango du edozein motatako mugimedua egin ahal izateko.

EBAKUZIOAREN ESKEMA OROKORRA



JAUREGIAN ESKUZKO SU ITZALGAILUEN KOKAPENA:



ERABILIKO DIREN INSTALAZIOAK



Eskuzko su itzalgailua :
 · Extintor de polvo polivalente de 6kg.
 · Eficacia 21A-114B-C.



BIE (Boca de Incendios Equipada):
 · 25mm 20metro.
 · BIE neurriak 680x650x180 mm.



Seinale luminiszentek:
 · Seinalearen neurriak: 210x210mm eta 420x420mm



Ke detektagailu optikoa:
 · Detector de humo óptico analógico algorítmico con microprocesador y direccionamiento digital de bajo perfil.



Alarma sakagailua
 · Pulsador manual, con led indicador de estado y llave de prueba, con conexionado mediante terminales.



Sirena akustikoa:
 · Dispone de una salida acústica de 102 dB ajustables.
 · Neurriak: Ø130 X 105 mm.



Central de alarma CLVR:
 · Alarma de incendios convencional

Klimatizazio eta aireztapena RITE-ren (Reglamento de Instalaciones Térmicas de los Edificios) arabera justifikatuko da.

Atal honetan CTE DB HE 2 (rendimiento de las instalaciones térmicas) atala justifikatu beharko da, zeinetan zuzenean RITE araudira bideratzen gaituen.

RITE-ko II. Kapitulua bete beharko da eskakizun teknikoek dagokiona eta bertako 4 artikulua garatuko dira:

- 10. artikulua. Instalakuntza termikoen eskakizunak.
- 11. artikulua. Ongizatea eta higieena.
- 12. artikulua. Eraginkortasun energetikoa.
- 13. artikulua. Sgurtasuna.

Eraikinaren klimatizazio eta aireztapen sistema unifikatua izango da. Tutu denak sabai faltsutik igaroko dira, entsegu zein ikasle gela denak akustikoki ahalik eta estankoenak izateko helburuarekin.

Klimatizazioa Roof top bidez gauzatuko da eraikin osoan, hotzitzeko zein berotzeko, aire-aire sistema bidez.

Bi makina egongo dira eraikin osorako, bakoitzak zati bat hartuko duelarik.

- 1. Roof top-a: jauregiko behe, lehen eta bigarren solairuetako hodieta lotuta egongo da.
- 2. Roof top-a: -1 solaiu osoa hartzeaz gain, sortutako eraikin berriko behe eta lehen solairua ere hartuko dituelarik.

Erabilitako Roof top-ak etxe komertzial berdinekoak dira, baita modelo bereberak; duten desberdintasuna potentzia da. Barnean bero berreskuratzeile bat dute, era honetara, aire garbia berotzeko askoz energia gutxiago erabili beharko da.

Bestalde, erabiliko diren konduktuak errektangelu formakoak dira eta arroka ilez inguratutakoak izango dira.

ERABILIKO DIREN INSTALAZIOAK



Inpulsio eta ekstrakzio rejilla erretikularrak:

- Etxe komertziala: Airzone.
- Sabai faltsuan integratzen diren rejillak.
- Plenumik gabe.

Klimatizaziorako erabilitako konduktuak:

- Etxe komertziala: Knauf.
- Arroka ilez inguratua




1_Rooftop:


- Etxe komertziala: Hitecsa. RXCBA RCF
- Potencia frigorífica: 237,40kW
- Potencia calorífica: 222,50kW

INSTALAKUNTZEN SISTEMA OROKORRA:

— Espazio bizigarri eta klimatizatuak



TUTUEN KOKAPENA:



Eraikinaren atordurei dagokionez, DB HE0 eta HE1 dokumentuen eskaerak betetzeko moduan proiektatu da.

Itxitura horizontalei dagokionez, hiru mota aurki ditzazkegu: terrenoarekin kontaktuan dagoena, jauregiko zurezko forjatuak eta eraikin berriko forjatu mixtoa (txapa kolaborantearen bidezkoa). Bestalde, itxitura bertikalei dagokionez ere, hiru ezberdin bereiztu dira: terrenoarekin kontaktuan egongo den soto horma, jauregiko harrizko fatxada (trasdosatu egin dena) eta u-glass fatxada, azken honen barruan bi bereizketa daudelarik. Barneko itxituretan Pladur marka komertzialeko sistemak erabili dira gehien bat, askustukoki ahalik eta hoberen isolatzeko helburuarekin.

Energia eskakizunei dagokienez, hiru zonalde bereizi dira eraikinean:

- Espazio bizigarri klimatizatuak: Ikasgelak, idazkaritza, zuzendaritza, irakasle gela, erakusketa gunea, liburutegi / fonoteka, areto nagusia eta entsegu gelak.
- Espazio bizigarri ez klimatizatuak: pasabideak eta komunak.
- Espazio ez-bizigarriak: Instalakuntza gelak eta igogailu zuloa.

Bero kargak ezagutzeko erabilera perfilari dagokionez, aplikatu den erabilera profila 12h + intentsitate ertaina izan da.

$$\%AD = 100 \cdot (D_{G,ref} - D_{G,obj}) / D_{G,ref} = 100 \cdot (32.3 - 19.0) / 32.3 = 41.0 \% \geq \%AD_{exigido} = 25.0 \%$$



donde:

$\%AD$: Porcentaje de ahorro de la demanda energética conjunta de calefacción y refrigeración respecto al edificio de referencia.

$\%AD_{exigido}$: Porcentaje de ahorro mínimo de la demanda energética conjunta de calefacción y refrigeración respecto al edificio de referencia para edificios de otros usos en zona climática de verano 1 y Media carga de las fuentes internas del edificio, (tabla 2.2, CTE DB HE 1), 25.0 %.

$D_{G,obj}$: Demanda energética conjunta de calefacción y refrigeración del edificio objeto, calculada como suma ponderada de las demandas de calefacción y refrigeración, según $D_G = D_C + 0.7 \cdot D_R$, en territorio peninsular, kWh/(m²·año).

$D_{G,ref}$: Demanda energética conjunta de calefacción y refrigeración del edificio de referencia, calculada en las mismas condiciones de cálculo que el edificio objeto, obtenido conforme a las reglas establecidas en el Apéndice D de CTE DB HE 1 y el documento 'Condiciones de aceptación de programas alternativos a LIDER/CALENER'.



U-GLASS FATXADAREN KANPOKO ORRIA:



U-GLASS FATXADAREN BARRUKO ORRIA, BEIRA:

Composición	XTREME 70/33 II	
	sig. PLANICLEAR	sig. DIAMANT
Transmisión Luminosa TL	70%	71%
Reflexión Exterior LRe	11%	11%
Reflexión Interior LRI	13%	13%
Factor Solar g	0.33	0.34
Transmitancia Térmica U	1.0 W/m ² ·K	1.0 W/m ² ·K

Valores según EN 410 y EN 673.


Saint-Gobain etxe komertziala.
SGG COOL-LITE
XTREME 70/33 II

ZUREZKO FORJATUA:

EGO-CLT MIX 240						
Sección 1	d	ρ	λ	R	R _s	R _t
EXTERIOR	50	450	0.130	50	0.385	0.596
EGO-CLT	140	350	0.130	50	1.077	1.673
PISEA	50	450	0.130	50	0.385	2.058
INTERIOR	50	450	0.130	50	0.385	2.443
R _t = 2.058 KW						
Sección 2						
EXTERIOR	50	450	0.130	50	0.385	0.596
EGO-CLT	140	170	0.040	1	3.500	4.096
FIBRA MADERA	50	450	0.130	50	0.385	4.481
INTERIOR	50	450	0.130	50	0.385	4.866
R _t = 4.866 KW						
peso por m ² 73.2 kg						
transmitancia térmica U = 0.205 W/(m ² ·K)						




ITXITURA TERMIKOAK




- ESTALKI INKLINATUA:
1. Teila zeramikoak
 2. Zurezko tabloia
 3. Isolamendua, 8cm
 4. Igeltsuzko plaka, 1,5cm

U: 0,32W/(m²k)




- ESTALKI LAUA:
1. Zinkezko akabera
 2. Osb tableroa, 2cm
 3. Aire ganbera + arrastrelak, 2cm
 4. Isolamendua, 12cm
 5. Lamina iragazgaitza
 6. Txapa kolaborantedun forjatu 14cm

U: 0,21W/(m²k)




- HARRIZKO FATXADA:
1. Igeltsuzko plakak, 1,5+1,5 cm
 2. Isolamendua, 4,5cm
 3. Aire ganbera, 8cm
 4. Jatorrizko harrizko horma, 80cm

U: 0,20W/(m²k)




- FATXADA, ORRI BAKARREKOA:
1. Igeltsuzko plaka, 1cm
 2. Isolamendua, 3cm
 3. Adreilu huts bikoitza, 11cm
 4. Finkatzeko morteroa, 0,4cm
 5. Isolamendu zurruna, 6cm
 6. Mortero base, 0,2 cm
 7. Mortero luzitua, 0,2 cm

U: 0,33W/(m²k)




- SOTO HORMA:
1. Igeltsuzko akabera, 1,5cm
 2. Hormigoi armatuzko soto horma, 30cm
 3. Adreilu huts bikoitza
 4. Poliestireno extruitua, 12cm
 5. Lamina iragazgaitza

U: 0,67W/(m²k)




- FATXADA, U-GLASS + BEIRAZKO ITXITURA:
1. Beira bikoitza, 6+16+4
 2. Aire ganbera, 22cm
 3. U-glass, 7+39+7mm

U: 0,67W/(m²k)



- FATXADA, U-GLASS + ITXITURA OPAKOA:
1. Igeltsuzko plaka, 1,5cm
 2. Isolamendua, 4cm
 3. Adreilu huts bikoitza, 8cm
 4. Aire ganbera, 22cm
 5. U-glass, 7+39+7mm

U: 0,68 W/(m²k)



- ZOLARRIA:
1. Baldosa zeramikoa
 2. Nibelazio morteroa, 4cm
 3. Isolamendua, 5cm
 4. Hormigoi armatuzko zolarria, 30cm
 5. Poliestireno extruitua, 10cm

U: 0,14 W/(m²k)

UR-HORNIKUNTZA

Ur- hornikuntza kode teknikoaren osasungarritasunaren oinarrizko dokumentuaren arabera justifikatuko da: EKT DB - HS 4, ur- hornikuntza.

Proiektu honetan ur-hornikuntza nahiko mugatua izango da. Ur hotza baino ez da behar izango komunak, bestako konketak eta proposatutako office txikian baino ez da beharko.

Eraikina herriaren erdigunean kokatuta dagoenez, ez du presio ponparik behar izango, azken kanillaren presioa nahikoa izango baita. Instalakuntza hau bitan banatuko da, bata jauregia hornituko duena eta besteak berriz eraikin berria; beraz, ez da horizontalean asko hedatuko eta hargunea instalakuntza geletatik sartuko da, bertan kontagailuak egongo direlarik.

Ur hornikuntzarentzako sarea igogailuen eta eskaileren albotik joango da, solairu danetako komuneko eta office-a hornituko dituelarik.

SANEAMENDUA


Saneamendua kode teknikoaren osasungarritasunaren oinarrizko dokumentuaren arabera justifikatuko da: EKT DB - HS 5, ur- hustuketa.

Ur fekalen eta euri-uren arteko bereizketa egingo da.

Ur fekalak ur fekalen sare orokorrera bideratuko dira eta euri urak berriz bi ataletan banatu ditzazkegu. Ur fekalen sareak bat egingo du ur-hornidurako sarearekin, paraleloki joando delarik. Sare hau ere igogailuaren albotik jeitsiko da.

EURI URAK

Euri urei dagokionez, sarea bitan banantzen da, alde batetik, jauregiko estalkitik jasoko den ura, euri uren sare orokorrera bideratuko da; eta eraikin berriko estalkitik jasotako ura berriz, fitodepurazio sistemaren bidez, parkean dauden landara espezifikoaren bidez ura lurrera filtratuko da.



ELEKTRIZITATEA

Argindarraren eta honen instalakuntzak Kode Teknikoaren, REBT-ren eta ITC-ren arabera justifikatuko dira.

- CTE DB - HE 3. Eficiencia energética de las instalaciones de iluminación.
- REBT. Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión.
- ITC. Instrucciones Técnicas Complementarias.

Eraikinaren energia iturria elektrizitatea izango da, argindarra, klimatizazioa... elektrizitate bidez funtzionatuko dute.

Elektrizitate eskemari dagokionez, hargunea Urarka kalean egongo da eta babes kaxa eraikinaren ipar mendebaldean dagoen sartunean egongo da, kanpoaldean, irisgarria izan dadin. Kontagailu armaitua eraikinaren barruan egongo da, behe solairuko instalakuntza gelan hain zuzen ere. Honen ondoan eraikinaren koadro orokorra egongo da, potentzia kontrolerako etengailuak, eraikineko etengailu orokorrak eta etengailu diferentziala izango dituelarik.

Bigarren mailako koadroak eraikinean ematen diren erabileren arabera bereizketa izango du:

1. Jauregian dauden ikasketa gela danak, eta behe solairua.
2. Eraikin berriko erabilerak: erakusketa gela, entsegu gelak eta liburutegia.
3. Areta nagusia.
4. Fatxadako argiztapena

Instalakuntzaren bideratzea sabai faltsutik zein hormetatik egingo da, erabiliko diren entxufe zein argiak estankoa izango dira, musika eskola izanik, akustikoki ahalik eta hoberen lan egin dezan.

Fatxadako argiari dagokionez, u-glass-aren eta barruko orriaren artean jarritako parrilatik eramango da eta argi sentsoaren baten bidez, argi naturala jeistean argia automatikoki piztu daiten.

ARGIZTAPENA

Argiztapena hurrengo araudiaren aabera justifikatuko da:

- CTE DB - HE 3. Eficiencia energética de las instalaciones de iluminación.
- Disposiciones mínimas de seguridad y salud en lugares de trabajo 486/1997
- CTE DB - SUA 4. Seguridad frente al riesgo causado por iluminación inadecuada.

Argiztapena ere, elektrizitate atalean bezala, espazio bakoitzean egongo den erabileraren arabera luminariak izango ditugu:

- Sabai faltsuan integratutakoak: estankoa diren gelak, komunak.
- Sabai faltsutik zintzilikatutakoak: pasilloan.
- Liburutegia.
- Areta nagusia.
- Erakusketa gunea.
- Fatxadako argiztapena

Etengailuei dagokionez, espazio komunetan zonaka banatu dira eta gainontzeko espazioetan berriz, ilaraka. Kumunetan, mugimendu detektatzaileen bidez pizten diren luminariak hautatu dira; ikasgeletan berriz, leihoetatik gertu dauden luminariak argi naturala aprobetxatzeko asmoz, kontrol propioa izango dute.

Sabai faltsuan integratutako luminariak:
· Ikasgelak:



Philips CoreLine Panel RC132V LED34S.
3400lm / 3000K / 33W

Sabai faltsuan enpotratutako luminariak:
· Komunak:




Philips CoreLine SlimDownlight LED20S
2000lm / 3000K / 28W

Sabai faltsutik zintzilikatutako luminariak:
· Pasilloak:




Custom create PT520T LED49S.
5120lm / 3000K / 40,3W

Sabai faltsutik zintzilikatutako luminariak:
· Liburutegia:




SmartBalance Suspendeda LED35S
3500lm / 4000K / 30W

Sabai faltsutik zintzilikatutako luminariak:
· Areta eta erakusketa gunea:




Proyector Green Space Accent LED27
2700lm / 3000K / 25,5W

Sabai faltsutik zintzilikatutako luminariak:
· Areta eta erakusketa gunea:



Master LEDtube Universal T8
24W840 T8
3700lm / 4000K / 24W



Erakusketa gela eta aretoko argiztapena Ikasteko guneak Fatxadako argiztapena

Akustikari dagokionez, proiektua burutzerako orduan Eraikuntzako Kode Teknikoko DB HR zarataren aurkako babesa, erregulatzen duen dokumentuko eskaerak betetzeko lan egin da. Proiektua musika eskola bat izakin, ikasgelak akustikoki oso ondo babestuta egon beharko dira, baita aretoa eta liburutegia ere.

Horretarako, erabiliko den tabileriak sistema bikoiztua edukiko du, igeltsuzko plaka bikoitza baita isolamendu bikoitza ere. Trasdosatuei dagokionez, jauregiko hassizko hormak aire ganbera tartean utzita, isolamendu baita igeltsuzko plaka bikoitza jarriko da.

Aretoa nagusian eta liburutegian, u-glass fatxada edukita ere akustika kontuan izan da. Fatxada honen barruko orriak igeltsuzko plaken akabera edukiko du, soinua xurga dezan, baita barruko orria beira danean, akustikoki prestazio onak dituen beira aukeratu da.


Patinillo zein instalakuntza geletan adreiluzko tabikeari isolamendu eta igeltsuzko akabera eman zaie, suteen aurkako erresistentzia lortzeaz gain, akustikoki ere lan egin dezaten. Hortaz gain, instalakuntzetarako erabiliko diren tutuak, aireztapen tutu zein saneamenduko tutuak, arroka ile isolamendurekin babestuta egongo dira.

TABIKERIA


XEHETASUN KONSTRUKTIBOAK:

Xehetasun honetarako Pladur sistema erabili da:


https://www.bimobject.com/es/pladur/product/pladur_1_tqs_1_1/pladur




BI TABIKEEN ARTEKO L LOTURA




TABIKERIA



TABIKE ETA ZUTABEAREN HARTEKO LOTURA



BI TABIKEEN ARTEKO T LOTURA




- ① Placa Pladur®
- ② Montante Pladur®
- ③ Canal Pladur®
- ④ Tornillo Pladur® PM
- ⑤ Tratamiento de juntas
- ⑥ Separación e ≥ 10 mm
- ⑦ Lana mineral
- ⑧ Fijación a soporte

SABAI FALTSUA


XEHETASUN KONSTRUKTIBOAK:

Xehetasun honetarako Pladur sistema erabili da:


https://www.bimobject.com/es/pladur/product/pladur_4_tec_4_53/pladur




BI TABIKEEN ARTEKO L LOTURA




BI TABIKEEN ARTEKO L LOTURA



BI TABIKEEN ARTEKO L LOTURA



- ① Placa Pladur®
- ② Placa Pladur® Registrable
- ③ Angular Pladur® L-24
- ④ Perfil primario Pladur® TR
- ⑤ Perfil secundario Pladur® TR
- ⑥ Pieza cuelgue Pladur® TR
- ⑦ Lana mineral
- ⑧ Varilla roscada
- ⑨ Tuerca y arandela
- ⑩ Soporte



Bereziki isolatutako estantziak